

## **Eskaera-epeak**

- **Hasiera data:** 2023/09/20
- **Aurkezteko azken eguna:** 2023/10/20ko 12:00etan.

## **Nori zuzendua dago?**

- Deskarbonizazioaren bidez haien industria-prozesuetan ingurumenaren babes maila hobetu nahi duten eta, ondorioz, berotegi-efektuko gasen isurpenak murriztu nahi dituzten Euskadiko industria produktu-prozesuari lotutako industriako eta zerbitzuetako enpresei.

## **Ohiko galderak**

### **Bateragarria al da programa hau beste erakunde batzuen beste dirulaguntzekin?**

Bai, betiere dirulaguntza horien guztien batura ez bada 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Araudiaren 36. artikulua zehaztutako muga baino handiagoa, eta dirulaguntza horiek Industria eta Trantsizio Ekonomikoaren Zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio.

### **Deialdirako hainbat eskaera aurkez daitezke?**

Ez. Eskaera bakarra bete daiteke enpresak egitea aurreikusten dituen jarduketara guztientzat.

### **Onartutako aurrekontuaren gainean zenbateko dirulaguntza ematen du programa honek?**

Dirulaguntzaren ehunekoa laguntza eskatzen duen enpresaren tamainaren arabera da:

- Mikroenpresak eta enpresa txikiak: % 30.
- Enpresa ertainak: % 25.
- Enpresa handiak: % 20.

Dirulaguntzaren intentsitatea % 2,5 handituko da Euskal Autonomia Erkidegoaren Ezkerralde Zabalduan kokatuta dauden inbertsioentzat.

### **Nola jakin dezaket nire enpresak zer tamaina duen?**

Deskarga ezazu hemen “ETE kontzeptuaren definizioari buruzko erabiltzailearentzako gida”. Bertan azaltzen da zer izan behar den kontuan eta enpresaren tamaina nola kalkulatu.

### **Programa honetako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa proiektuaren arabera da?**

Ez, gehieneko zenbatekoa enpresa eta/edo enpresa-talde bakoitzekoa da, eta muga 1.500.000 eurokoa da.

### **Zer dirulaguntza-mota da?**

Dirulaguntzen esleipena norgehiagoka bidez ebatziko da eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izango da.

### **Gutxienerako inbertsiorik ba al dago eskaera bakoitzarentzat?**

Bai, enpresek gutxienez 100.000 €-ko inbertsioa egin beharko dute.

### **Programa honetan aurkeztutako proiektua finantza-errentamenduaren bitartez finantzatu daiteke?**

Proiektua finantza-errentamenduaren bitartez finantzatu daiteke; betiere, laguntza jaso dezakeen inbertsioentzat hartzeko, kontratua amaitutakoan erosteko aukera eta erosketa hori bi aldeek sinatutakoan gauzatzeko konpromisoa barne hartzen baditu.

### **Dirulaguntza honetan aurkeztutako proiektuaren eskaerak zer izan beharko du?**

Eskaerak inbertsioen memoria xehea eta eskatzaileak osatu beharreko kalkulu-orria izan beharko ditu.

### **Programara aurkeztutako proiektuaren memoria teknikoak zer izan behar du?**

Informazio hau izan behar du dokumentuak:

- Inbertsioaren deskribapena eta egiteko epeak.
- Produktuaren eta ekoizpen-prozesuaren azalpena, inbertsioa egin aurretik eta ondoren
- Isurpenen murrizketa kalkulatzeko erabilitako kontsumo-balioen justifikazioa
- Plan ekonomiko finantzarioaren xehetasuna

### **Programara aurkeztutako kalkulu-orriak zer izan behar du?**

Eskatzaileak bete beharreko kalkulu-orriak aukera ematen die enpresei ekidin dituzten isurpenak kalkulatzeko eta informazio hau jaso behar da bertan:

- Berotegi-efektuko gasen (BEG) isurpena murriztearekin zuzenean lotuta dagoen inbertsio aukeragarriaren kostuen eraginkortasuna. Efizientzia hori kalkulatzeko, inbertsio aukeragarriaren balioa inbertsioaren bitartez lortutako eta gehienez ere 10 urtetan zehar kalkulatzeko CO<sub>2</sub>aren tona baliokideen murrizketarekin zatitu behar da.
- Inbertsioaren xede-prozesuan erabilitako erregaiak eta energia-iturriak eta haiei dagozkien kontsumoak, inbertsioa egin aurretik eta ondoren.
- Dirulaguntza eskatu den inbertsio aukeragarriaren balioa.

### **Zein da programa honetan aurkeztutako proiektua egiteko epea?**

- Dirulaguntza eskatzen den egunetik 2024/12/31ra.

### **Noiz ordainduko da Industriaren Deskarbonizazioa programaren dirulaguntza?**

Dirulaguntza hainbat ordainketatan zatituko da:

- Lehen ordainketa, aldeztu aurretikoa, dirulaguntza onartu ondoren egingo da, eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 5koa izango da.
- Gainerako ordainketak egiteko, enpresa onuradunak atal hauek bete beharko ditu egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bidez:
  - o Dirulaguntza jasotzeko egindako inbertsioen adierazpena.
  - o Ordainagirien koadroa, inbertsioaren gastuen eta zenbatekoen zerrenda sailkatuarekin (BEZik gabe).
  - o Dirulaguntza eman ondoren, Europar Batasuneko Batzordeak laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki duelako onuradunak berreskuratzeko agindurik ez duela egiaztatzen duen adierazpena.
  - o Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25era gutxienez heltzen diren enpresaren berezko baliabideen zenbatekoaren, jatorriaren eta aplikazioaren zenbatekoaren adierazpena.

### **Zein da programa honen likidazio-eskaera aurkezteko gehieneko epea?**

2 hilabete, inbertsioak egiteko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

### **Enpresa onuradunak zer baldintza bete behar dituzte programa honetan?**

Enpresa onuradunak Enpresa Handiak eta Enpresa Txiki eta Ertainak (ETE) izan daitezke; erauzketa-industrien, eraldatzaileen, ekoizpen-industrien edo industriako produktuari-

prozesuari lotutako zerbitzuen parte baldin badira; eta dirulaguntza jasotako inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badaude.

### **Ba al dago deialdi honetatik kanpo geratzen den enpresa-motarik?**

Bai, erakunde hauek deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren parte diren erakundeak, Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio Ordenatzaileen Legearen Testu Bategina onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Energia sortu eta banatzen duten enpresak.
- Energia-zerbitzuetako enpresak.

### **Industria Deskarbonitzatzeko programan aurkeztu daitezke bi proiektu eskaera berean?**

Bai, izatez, beharrezkoa da enpresak aurreikusitako inbertsio guztiak eskaera bakarrean aurkeztea.

### **Noiz aurkeztu behar dut eskaera onartua izan dadin?**

Eskaeraren xede-proiektua hasi aurretik. Gainera, lanak egun horretatik aurrera egin beharko dira, betiere 2023ko ekitaldian hasita eta gehienez ere 2024ko abenduaren 31ra arte.

### **Proiektua Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratu aurretik hasi baldin bada, aurkeztu daiteke eskaera?**

Ez, inbertsioa eskaera egin ondoren hasi behar baita.

### **Zein dira deialdian laguntza jaso dezaketen dirulaguntzak?**

Dirulaguntza jaso dezaketen inbertsioetat hartzen da ekoizpen-prozesuen deskarbonizazioaren bitartez berotegi-efektuko gasak murriztera edo ezabatzerara bideratuta dauden enpresaren aktibora gehitzeko aktibo finkoen erosketa, kategoria hauetakoren bat jorratzen badute:

- 212 Instalazio teknikoak
- 213 Makinak
- 215 beste instalazio batzuk
- 217 Informazio-prozesuetarako ekipoak

Erregai fosilak erabiltzen dituzten (gas naturala barne) industria-prozesuetako ekipoetan, makinetan eta instalazioetan egindako inbertsioetan, ekipoen, makinen edo ekoizpen-instalazioen ingurumen-babesaren maila hobetzen duten osagarri gehigarrien instalazioari soilik emango zaio dirulaguntza; betiere, inbertsio berriarekin ekoizpen-gaitasuna handitzen ez bada eta erregai fosilen kontsumoa handitzen ez bada.